

XIV. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Jainko Jauna, zure Semea beheratuz,
jaso egin duzu eroria zegoen mundua;
eman zeure fededunei egiazko poza,
eta egizu, bekatuaren uzterpetik askatu dituzunek
betiko zoriona izan dezatela.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 66, 10-14c

Ibaia bezala isuriko dut haren gainera bakea.

Isaias Profetaren liburutik

Poztu zaitezte Jerusalemekin,
maite duzuen guztiok, egin jai harekin;
alaitu eta poztu harekin,
dolu egin zenutenak harengatik.
Asetzeraino edoskiko baituzue haren bularren gozoa,
atseginez xurgatuko haren bularren oparoa.
Honela mintzo baita Jauna:
«Ibaia bezala isuriko dut haren gainera bakea,
eta gainezka doan ibaia bezala, herrien ondasuna.
Haren haurrak besoetan eramango dituzte,
belaunetan maiteki hartuko dituzte.
Amak bere haurra gozatzen duen bezala,
hala zaituztek Nik gozatuko,
eta zuen gozamina Jerusalem duzue izango.
Poztuko da zuen bihotza hori ikustean,
loratuko dira zuen hezurak belardi baten antzean,
agertuko da Jaunaren eskua bere zerbitzariengan».

ERANTZUN SALMOA: Sal 65, 1-3a. 4-5. 6-7a. 16 eta 20

R/. Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.

Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari,
egin eresi Haren izen ederrari,
eman gorespen eder Berari.
Esan Jainkoari:
«Zuk eginak bai direla harrigarriak!» R/.

Ahozpeztu bedi lur osoa zure aurrean eresi eginez,
zure izenari eresi eginez.
Zatozte eta ikus Jainkoaren lanak,
harritzeko dira-eta gizakiengatik egin dituenak. R/.

Itsasoa lehor bihurtu du,
oinez igaro dira ibaiaren erditik;
beraz, poztu gaitezen Harekin.
Nagusi da ahalizatez betiko. R/.

Zatozte eta entzun Jainkoaren beldur zaretenok,
esango dizkizuet nire alde Hark eginak.
Bedeinkatua Jainkoa, ez baitu uxatu nire eskaria,
ez baitit ukatu bere grazia. R/.

II. IRAKURGAIA: Ga 6, 14-18

Jesusen ezaugarriak nire gorputzean daramatzat.

San Paulo Apostoluak Galaziarrei

Senideok: Jainkoak libra nazala harrotzetik, Jesu Kristo gure Jaunaren gurutzan izan ezik. Gurutze horretan gurutziltzatua dago mundua niretzat eta ni munduarentzat. Izan ere, ezer ez dira, ez erdaindua, ez erdaingabea; izaki berriak du balio.

Bakea eta errukia lege honen jarraitzaileari! Baita Jaungoikoaren Israeli ere! Hemendik aurrera ez diezadala inork nekerik eman: Jesusen ezaugarriak nire gorputzean baitaramatzat nik.

Senideok, Jesu Kristo gure Jaunaren grazia zuen espirituarekin. Amen.

EBANJELIOA: Lk 10, 1-12. 17-20

Aleluia: Kol 3, 15a. 16a

R/. Aleluia.

V/. Kristoren bakeak agindu beza zuen bihotzetan;
oparo bizi bedi zuengan Kristoren hitza. R/.

Irakurgai laburragoa egin nahi bada, [] kako artean ematen den zatia utz daiteke.

Haien gainean kokatuko da zuen bakea.

Jeuskristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi aukeratu zituen, eta bere aurretik bidali binaka, Bera joatekoa zen herri eta auzo guztietara.

Eta esan zien: «Uzta ugaria da; baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte; begira, arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman zeuekin, ez diru sakelik, ez bide zorrerik, ez oinetakorik. Eta ez gelditu bidean, inori agur egiten. Etxeren batean sartzen zaretenean, hau izan bedi zuen aurreneko hitza: "Bakea etxe honetan!" Eta han bakezko jenderik bada, haien gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, berriz, zuengana itzuliko da. Etxe hartan bertan egon zaitezte; jan ezazue eta edan daukatenetik, zor zaio eta langileari bere saria.

Ez ibil etxez etxe. Herriren batean sartzen zaretenean ondo hartzen bazaituzte, jan ematen dizuetena; sendatu hango gaixoak, eta esaezue: "Hurbil duzue Jainkoaren erreinua".

[Baina herriren batean sartzen zaretenean ondo hartzen ez bazaituzte, atera zaitezte haien enparantzeta, eta esan: "Oinetan itsatsi zaigun hautsa ere, hor astintze

hurbil dela Jaungoikoaren erreinua".

Egia esan: egun hura eramangarriago izango zaio Sodomari, halako herriari baino».

Hirurogeita hamabiak pozez beterik bihurtu ziren, eta honela esan zioten Jesusi: «Jauna, deabruak ere menpean jartzen zaizkigu zure izenean».

Jesusek erantzun zien: «Ikusten nuen Satanas tximista bezala zerutik erortzen. Suge eta arrubioak eta etsaiaren indar guztiak zapaltzeko ahalmena eman dizuet; eta ez dizue ezerk kalterik egingo. Hala ere, ez zaitezte poztu espirituak menpean daukazuelako; poztu zaitezte, zuen izenak zeruetan idatzita daudelako».]

Oparigaien gainekoa

Eskaintzen dizugun opari honek
garbi gaitzala, Jauna,
eta eraman gaitzala
egunetik egunera zerutar antzerago bizitzera.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Hain dohain handiak harturik, Jauna, eskatzen dizugu
salbamen fruituak irits ditzagula
eta Zu goresten bizi gaitzela.
Jesu Kristo.